

EUSKO LEGEBILTZARREAN

Gasteiz, 1988-XII-16

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburua

- Jesus Egiguren, Parlamentuko Presidentea
- Patxi Ormazabal, Presidente-orde lehena
- Joseba Leizaola, Presidente-orde bigarrena
- Koro Garmendia, Idazkari lehena
- Alfredo Marko Tabar, Idazkari bigarrena
- Alberto Figueroa, Letradu Nagusia

Jaun-andreak:

Eskerrak eman beharrean naiz zuei, Legebiltzarreko Mahaia osatzen duzenoi, alegia, Euskaltzaindia gaur zeuekin egoteko gogoia eta eskea agertu diguzuelako. Ohoragarria da hori gure erakundearentzat; eta baita une egokia ere izan daiteke elkarrekin ditugun helburu, jokabide eta lokarri aski hurbilak gogoratzeke.

Euskaltzaindia orain dela 70 urte sortua da, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek sortua; beraz, herri-agintariek sortutako instituzio bat da, hots, instituzio publikoa. Eta xede jakin batekin sortua izan zen: euskara zaindu, arautu eta gaurko egunean tresna edo mintzabide egokia bihurtzeko xedearekin, horretarako behar diren urratsak ematen saia dadin, alegia. Eta bere sorrera-egunetik Euskaltzaindiak halako ikuspegi orokor batekin heldu zion bere eginbeharri, esan nahi dut, hizkuntza hau mintzatzen den eremu guztia, bere euskalki eta mintza molde berezi guztiak gogoan hartuz; hain zuzen horrexegatik Euskaltzaindiak euskalki guztietako ordezkari eta mandatariak ditu bere galtzarrean. Eta ikuskera pluralista honekin eta guztien eritziak entzunez, saiatzen da bere sorrera-egunean egotzi zitzaizkion helburuak betetzen.

70 urte hauetan saiatu da, bada, Euskaltzaindia, bere ahalbideen neurrian, leporatu zitzaion egitekoari erantzuten, bai kinka larriak eta bai beste batzuk hobeak, igaroz. Urte horietan burututako lana ez dut uste bat ere makala izan denik, eta esan dudan bezala, beti egin du bere eginbehar hori instituzio bati dagokion gisa, alderdikierietatik urrun egonez, pluralismoa eta demokrazia kontutan hartuz. Ez dut uste une hau egokia denik egindako lan hori zehatz-mehatz azaltzen eta kontaktzen hasteko. Bakarrik esango dut lan hau beti egin dugula ikuspegi pluralista eta demokratiko hori aintzat hartuz. Honekin ez dut esan nahi, bestalde, euskararen etorkizuna arrosa kolorekoa ikusten dudala. Guri dagozkigun lanak eginik ere, baditu bai euskarak bestelako katramilarik eta ahuleziarik aski, eta horiek sendatzea ez dago gure eskuan, zuzenean behintzat.

Hizkuntzak, hizkuntza bizi bezala irauteko, ezinbestekoa du mintzatzaileen komunitate trinko bat edukitzea eta ni beldur naiz komunitate hori gero eta gehiago, mehetuz eta bakanduz ez ote zaigun joango. Baina bego.

Dena dela, eta honetara doa esan nahi nuen guztia: gure Erakundeak badu zuekin idurika edo antz handia. Beste maila bateko auziak, baina beti ere gure herriaren onerako zuzendu eta konpondu nahiez zabiltzate zuek ere; beste maila bateko auziak esan dut, baina halere guk darabilzkigunekin zer ikusia dutenak. Eta bai batzuk eta bai besteak erabakitzeke jokaera berdintsua, hots, pluralista eta demokratikoa darabilgu biok. Zalantza gabe, aurrengo instituzioa zarete, herriak hautatu zaituztenez eta zuengan bere fidantzia jarri duenez gero. Labur bilduz, zuek eta guk, bakoitzak bere sailean, lan egin dezagun gogotik herri honentzat batasunean eta aniztasunean etorkizun hobe bat sortzeko. Halabiz.

* * *

Señoras y señores:

Tengo que agradecer en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia esta iniciativa de la Mesa del Parlamento Vasco por la que habéis querido recibirnos. Es un motivo de honor para nuestra institución, al par que una oportunidad para reflexionar sobre los vínculos, aspiraciones, objetivos y modos de actuar similares que unen a ambas instituciones.

Euskaltzaindia es creada en 1918-1919 por las Diputaciones de Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra para cuidar de la lengua vasca y tratar de normalizar el cultivo de esta lengua, adaptándola a las necesidades del mundo actual. Desde el primer momento fundacional preside a la concepción de la Academia una mirada por así decir ecuménica, quiero decir que abarca a todo el ámbito de la lengua vasca con todos sus dialectos y variedades, por lo que la Academia trata de tener en su seno representantes de todos ellos. Dentro de esta visión pluralista y contrastando las opiniones entre todos, trata de alcanzar los objetivos por los que fue fundada.

Desde su fundación, como he dicho, en los años 1918-1919, hasta hoy, o sea, hace ahora 70 años, pasando por tiempos difíciles y otros más favorables, pero que tampoco dejan de ser conflictivos y problemáticos, intimidados como están por el flagelo de la violencia, la Academia, sin perder nunca de vista su método abierto al pluralismo y a la democracia, creemos que ha realizado y está realizando un trabajo no desdeñable en orden a cumplir los objetivos para los que fue fundada. No es este el momento —creo— de descender a exponer en concreto cuáles han sido los logros que se han conseguido o están en vías de conseguirse, sin que esto quiera decir tampoco que veamos con lentes de color de rosa el futuro de la lengua vasca, pues el camino a recorrer es arduo y los obstáculos a remontar son numerosos, y muchos desbordan nuestro campo de acción. Sólo os diré que de los 24 académicos de número de que consta la institución, 7 son de Iparralde, 4 de Navarra y el resto —o sea 13— de esta Comunidad Autónoma del País Vasco y todos procuramos trabajar unidos por el mismo amor a la lengua del país, dialogando, confrontando los puntos de vista de unos y otros, o sea, con un espíritu pluralista y democrático.

Creo que dicho está con esto que la semejanza con vosotros, de que he hablado antes, no es traída por los pelos. También vosotros en esta Comunidad

Autónoma, que abarca parte del país y que aspira a resolver problemas de otro orden, pero que están también conexos con los nuestros, seguid el mismo método pluralista y democrático para ello. Sois, sin duda, la primera institución en cuanto que encarnáis la representación del pueblo que os ha elegido y ha depositado en vosotros su confianza.

Que unos y otros, cada uno en su campo, trabajemos animados por el mismo ideal de conseguir para este país un futuro mejor de unidad en la pluralidad. Así sea.

EUSKALTZAIN JAUNOK

Vitoria-Gasteiz, 1988-XII-16

Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco

Jesus Egiguren

Lehendakaria/El Presidente

Benetan atsegingarri zait gaur, euskaldunen goren mailako ordezkotza duen inguru honetan zuekin izatea. Eusko Legebiltzarra bere ateak ahalik eta gizarte-sailik haundienei zabaltzen ahalegintzen deneko aldi honetan, Akademi batek, kasu honetan Euskaltzaindiak, herri honen joan-arian izan duen eta oraindik era ba duen garrantziari buruz zorretan geunden.

Legebiltzar honek, gure hizkuntza, euskaldunon hizkuntza hau zaintzeko, normaltzeko eta gaurkotzeko lanean, etenik gabe eta tinko jardun izanari zor zaion aitortpena argi eta garbi adierazten dizue.

Euskaltzaindiak euskeraren aldeko lanean izan duen tinkotasunari, herriaren onari begira jokatzeko eta herri honen ordezkotza duten erakundeei laguntzeko izan duen gogoari esker dugu gaur egun Euskaltzaindia horren erakunde irmoa.

Bere baitan irizkera guztietakoak izateari, eta horiek guztiak euskaldun guztiona den helburu baten aldeko ahaleginean biltzeko gauza izateari esker sendotu da Euskadin Euskaltzaindiak duen, zalantzan jarri ezinezko eta inork zalantzan jartzen ez duen izen ona.

Gizartean euskerari dagokion nagusitasunaren aldeko lanean gabiltzan guztioi zer pentsaturik eman behar liguke horrela egindako bideak. Euskadiko gizarte osoa kontutan hartu, eta gehiegikeriak alde batera utzirik, lortuko dugu gure hizkuntzak behar duen gizarte-mailako adostasuna.

Zuek guztiok jakin ba dakizuenez, Legebiltzar honek arreta berezia egin dio euskeraren erabilerako normalkuntzari. Eta, hemen zaudetenen artekoen batek gogoan izango du, inoiz legebiltzarkide izan delako, gure hizkuntza-lege nagusia ahalik eta irizkidetasunik haundienez onartzeko, ahalegin-faltarik ez zela izan.

Garai hartan (Euskeraren erabilera normaltzeko Oinarrizko Legea onartu zeneko, 1982garreneko Azaro hartan) Legebiltzar honetan lortu zen adostasun-maila berriro aipatu nahi dut, izan ere, gizartearen aldetik irizkidetasun haundiarren gai izan beharreko gairik izatekotan, hori hizkuntza da eta. Alderdikeriazko irizpideen artean zartatuta uzteko baino askoz garrantzi haundiagokoa da euskera.

Alperrikako borroketatik gorde egin behar dugu euskera. Hasarreak sortzen dituen hizkuntzak porrot egiten du, zabaldu ezineko gertatzen da eta. Alderantziz, ordea, nor bakoitzaren pentsakera itxiak gaintuz, gizarteko sail haundiek

ontzat ematea izango da gure jatorrizko hizkuntzaren etorkizunik onena segurtatzeko era.

Eta gero eta jende gehiago ari da honetaz ohartzen. Gero eta euskal herritar gehiago ari dira euskera inoren ogasun ez denaz jabetzen eta, hori, euskera guztiona delako, noski.

Azkenik, aukeraz baliatuz, Aita Villasanteri, Euskaltzaindiko buru izanez egin duen lan bikain eta baliotsuagatik, nere zorionik beroenak eman nahi dizkiot. Eta zorionak eman, ez Legebiltzarreko buru naizenez soilik, ez; baita euskaldun naizenez ere, euskeraren eta literatura-mailako batasunaren onerako, hemezortzi urte hauetan Euskaltzaindiko buru izanez egin duzun guztiagatik, nere eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizut.

Eta ez egin duzunagatik bakarrik, baita nola egin duzunagatik ere, eztabaidagai izan behar ez duen arazo bat, eraman duzun eran, patxadaz eramaten jakin duzulako.

Izan ere, azken baten, eta esatea zilegi bekit, hizkuntza gizakiarentzat egina dago, eta ez gizakia hizkuntzarentzat. Eta hizkuntza gizakien harremanetarako bide denez, euskaldunen arteko harreman-maila areagotzeko gauza izatea izango da gure hizkuntzaren salbamen-bidea.

Eskerrik asko.

* * *

Señores académicos:

Es para mí un motivo de verdadera satisfacción poder estar hoy con ustedes, en este ámbito de la máxima representación de los ciudadanos vascos. En una etapa de su todavía corta existencia, en la que el Parlamento Vasco se esfuerza por abrir sus puertas a los más amplios sectores sociales, teníamos una deuda pendiente con todo lo que la Academia ha representado y sigue representando en este país.

Esta Cámara que me honro en presidir desea expresarles abiertamente el reconocimiento institucional que se debe a una labor tenaz y constante, dedicada a preservar, normalizar y actualizar nuestra lengua, la lengua de los vascos.

Su tenacidad, su capacidad de diálogo y su espíritu constructivo y de colaboración con las instituciones representativas del país en la defensa del euskera han hecho de Euskaltzaindia la sólida realidad que hoy es. Su pluralismo interno y su capacidad para integrarlo en la lucha por un objetivo común a todos los vascos ha cimentado la autoridad indiscutible e indiscutida de la Academia en Euskadi.

Una trayectoria semejante debería hacernos reflexionar a todos los que nos sentimos vitalmente interesados en que el euskera adquiera el protagonismo social que le corresponde. Porque sólo partiendo de una actitud flexible y realista, que tengan en cuenta a la sociedad vasca en su conjunto, sólo aplicando unos criterios científicos que huyan de maximalismos, se puede propiciar el acuerdo social que necesita nuestra lengua.

Todos ustedes saben que este Parlamento ha dedicado una especial atención a la normalización del uso del euskera. E, incluso, algún académico aquí presente recordará, por su pasada condición de parlamentario, que no escasearon los esfuerzos para que se aprobara nuestra ley lingüística fundamental con un alto grado de consenso.

Quiero insistir en el consenso parlamentario alcanzado en aquella época (aquel mes de Noviembre de 1982, en que se aprobó la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera), porque, si existe una materia que debe ser objeto de un amplio acuerdo social, ésta es la lengua. El euskera es algo demasiado importante como para desgarrarlo en consideraciones partidistas.

Debemos preservar al euskera de luchas estériles. Una lengua que provoca el enfrentamiento fracasa, porque no puede expandirse. Por el contrario, un amplio acuerdo social por encima de los clichés ideológicos será la garantía de un futuro prometedor para nuestra lengua originaria. Esto es algo que se va entendiendo progresivamente. Cada vez en mayor medida, los ciudadanos vascos están asumiendo que el euskera no es patrimonio de nadie, porque pertenece a todos los vascos.

Quiero, por último, aprovechar la ocasión para felicitar muy cordialmente al padre Villasante por su eficaz y brillante labor al frente de la Academia. No sólo como presidente del Parlamento, también como euskaldun, deseo expresarle mi más sincero agradecimiento por todo lo que usted ha hecho en beneficio del euskera y de su unificación literaria, en estos dieciocho años al frente de Euskaltzaindia. Y no sólo por lo que ha hecho, sino por cómo lo ha hecho, por la serenidad que ha sabido imprimir a una cuestión que no debe ser objeto de polémica.

Porque, en definitiva, y me permito citarle, el idioma está hecho para el hombre, y no el hombre para el idioma. Y, teniendo en cuenta que un idioma es un vehículo de comunicación, la clave del éxito de nuestra lengua estará en su capacidad de aumentar el nivel de comunicación entre los vascos.

Muchas gracias.

Así pues, y resumiendo, les reitero mi agradecimiento por su presencia en el Parlamento, en un acto que quiere ser una muestra de reconocimiento a la importante labor desarrollada por Euskaltzaindia en pro del euskera; un idioma que, como antes les decía, es algo demasiado importante como para desgarrarlo en consideraciones partidistas. Una realidad que se está asumiendo, porque el euskera no es propiedad de nadie, sino que es patrimonio de todos los vascos.

Deseo, igualmente, agradecer al Padre Villasante su gran labor en pro del euskera y de su unificación literaria. Y, por último, no quiero olvidarme de felicitar al señor Haritzelar, por su reciente nombramiento de "Doctor Honoris Causa" por la Universidad del País Vasco. Nombramiento sobradamente merecido, por su brillante trayectoria.